

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN AnD.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek  
Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:  
Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzarrak, 2025eko apirilaren 29an izan zuen ohiko bilkuran, erakunde adierazpen hau onartu zuela, gehiengoz:

***“TURISMO-TASARI BURUZKO ERAKUNDE  
ADIERAZPENA***

*Donostiako Udalaren arabera, turismoa hiriko barne produktu gordinaren % 13,9 da eta 15.000 lanpostu sortzen ditu. Hala ere, lau donostiarretik hiruk ez dute sentitzen beren bizi-kalitatea hobetu denik turismoa dela eta.*

*Turismoa lehen mailako jarduera sozioekonomikoa da, eta, beraz, herritarren bizikaltatea eta ongizatea hobetzen lagun dezake. Baina, horretarako, ezinbestekoa da turismo-jardueraren itzulera soziala bermatzea, eta, alde horretatik, turismo-tasa da tresnarik ezagunena. Horretan ari dira aspalditik Europako hainbat herrialde eta hiri. Adibide eta erreferentzia ugari daude, baita hemen ere, Donostian, 1931rako "impuesto muncipal de turismo" deiturikoa aplikatzen baitzen.*

*Turismo-tasa, bidaiariak helmuga turistiko jakin batzuetan ostatu hartzean ordaindu behar duen zerga da. Donostiara datorren turistak, bere egonaldian, donostiarrok gure egunerokoan erabiltzen ditugun baliabide eta zerbitzuez baliatzen da, hala nola garraio publikoaz, garbiketaz edo hiri-mantentzeaz. Horrek, udalerriari gastu erantsia dakarkio jakina. Beraz, bildutako dirua higadura edo inpaktu hori arintzeko erabiliko balitz, turismo-tasak turismoaren itzulera soziala laguntzen duela esan genezake.*

*Donostiako Udalak behin baino gehiagotan adierazi du tasa turistiko bat ezartzeko beharra. Hala ere, ezinbestekoa da haren diseinuak eta ezarpenak ekitate-eta eraginkortasun-irizpideei erantzutea, sortutako baliabideak tasa hori biltzen den udalerrietan*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 29 de abril de 2025, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

***“DECLARACIÓN INSTITUCIONAL, RELATIVA A  
LA TASA TURÍSTICA***

*Según el Ayuntamiento de San Sebastián, el turismo representa el 13,9 % del PIB urbano y genera 15.000 empleos. Sin embargo, tres de cada cuatro donostiarras no sienten que su calidad de vida haya mejorado con el turismo.*

*El turismo es una actividad socioeconómica de primer orden, por lo que puede contribuir a mejorar la calidad de vida y el bienestar de la población. Pero para ello es imprescindible garantizar el retorno social de la actividad turística, siendo la tasa turística el instrumento más conocido para ello. En ello están inmersos muchos países y ciudades europeas desde hace tiempo. Existen multitud de ejemplos y referencias, también aquí en San Sebastián, porque para 1931 se aplicaba el llamado “impuesto municipal de turismo”.*

*La tasa turística es el impuesto que debe satisfacer la persona viajera en el alojamiento en determinados destinos turísticos. El turista que llega a San Sebastián durante su estancia se sirve de los recursos y servicios que los donostiarras utilizamos en nuestro día a día, como el transporte público, la limpieza o el mantenimiento urbano. Esto supone, por supuesto, un gasto añadido al municipio. Por lo tanto, si el dinero recaudado se destinara a paliar esta erosión o impacto, podríamos decir que la tasa turística contribuye al retorno social del turismo.*

*El Ayuntamiento de San Sebastián ha manifestado en varias ocasiones la necesidad de establecer una tasa turística. No obstante, es imprescindible que su diseño e implantación responda a criterios de equidad y eficiencia, garantizando la devolución directa de los*



*zuzenean itzuliko direla bermatuz. Hau da, turismo-tasak izaera progresiboa izan behar du, ezin baita berdina izan kanpin batean edo bost izarreko hotel batean ostatu hartzen duenarentzat. Gainera, karga finalista izan beharko luke, turismo-jarduerak udaleko diru-kutxan sortzen duen inpaktua arintzera bideratutakoa. Azkenik, turismo-tasak tokiko kudeaketa izan behar du, horrek aukera ematen baitu gure hiriaren behar eta erronka espezifikoak zuzenean erantzuteko.*

*Donostiako Udalak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari turismo-tasa ezartzea ahalbidetuko duen arau-esparrua berehalakoan ezartzea. Esparru horrek, era berean bermatu behar du udalek kudeatuko dutela turismo-tasaren bilketa, eta aukera emango zaio udalerri bakoitzari hura ezartzeko eta lortutako diru-sarreraren xedea zehazteko, beharren eta lehentasunen arabera.*

*Donostian, 2025eko martxoaren 12an*

*Juan Carlos Izagirre*

*EH Bildu udal taldeko bozeramailea”.*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

*recursos generados en los municipios donde se recauda esta tasa. Es decir, la tasa turística debe tener un carácter progresivo, ya que no puede ser la misma para quien se aloja en un camping o en un hotel de cinco estrellas. Además, debería ser una carga finalista, orientada a mitigar el impacto de la actividad turística en la tesorería municipal. Por último, la tasa turística debe ser de gestión local, lo que permitiría responder directamente a las necesidades y retos específicos de nuestra ciudad.*

*El Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a establecer de forma inmediata un marco normativo que permita la implantación de la tasa turística. Este marco, a su vez, debe garantizar que la recaudación de la tasa turística sea gestionada por los ayuntamientos, permitiendo a cada municipio su implantación y la determinación del destino de los ingresos obtenidos, en función de sus necesidades y prioridades.*

*San Sebastián, 12 de marzo de 2025*

*Juan Carlos Izagirre*

*portavoz del grupo municipal EH Bildu”.*

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**  
**V. ° B. ° DEL ALCALDE:**